

Hegaztiekin gauza ezberdin asko jaten dituzte. Batzuetan hegaztiaren mokoa ikusita jakin daiteke zer nolako elikadura duen.

Garau jaten dituzten hegaztiekin mokoa gogorra eta lodia dute, eta garaujaleak deitzen dira.

Hegazti intsektu-jaleek mokoa mehea eta zorrotza dute.

Lokatza artean, hondarrean eta lurzoru bustian, janaria bilatzen duten hegaztien mokoa finagoa eta luzeagoa da. Uretatik gertu bizi direnez urbazterrekoak deitzen dira.

Hegazti harrapakariak haragia jaten dute eta beraien mokoa makurra eta sendoa da haragia urratzeko.

- **Txantxagorriak euliak eta eltxoak jaten ditu. Zer nolako mokoa du?**
 - A. Luzea eta fina.
 - B. Gogorra eta lodia
 - C. Meharra eta zorrotza
 - D. Luzea eta lodia
 - E. Handia eta makurra
- **Izenburu hauen artean zein dagokio testu honi?**
 - A. Hegaztien garrantzia.
 - B. Hegaztien elikadura.
 - C. Hegaztien mokoak.
 - D. Moko motak elikaduraren baitan.
 - E. Hegaztien mokoaren neurriak.
- **Zergatik uste duzu urbazterreko hegaztien mokoa luzea eta mehea dela?**
 - A. Eltxoak hegan doazela harrapatzeko.
 - B. Beste animalien garrak defendatzeko.
 - C. Zuhaitzen adarretan intsektuak bilatzeko.
 - D. Lokatzetan janaria bilatzeko, busti gabe.
 - E. Janari mota ezberdinak bilatzeko.
- **Testuaren arabera, sailkapen hauen artean zein da egokiena?**
 - A. Garaujaleak – intsektujaleak – moko luzeak – moko motzekoak.
 - B. Garaujaleak – intsektujaleak – urbazterrekoak – harrapakariak.
 - C. Moko lodikoak – moko mehekoak – urbazterrekoak – moko makurdunak.
 - D. Garaujaleak – intsektujaleak – harrapakariak – moko makurdunak.
 - E. Moko gogorrekoak – moko mehekoak – urbazterrekoak – harrapakariak.